

IRONIAZKO KOKTELA

Antton Kazabon

Doinua: Dozena bat bertso berri

- 1.- Gure anbulatorioa bertsoz jipoitzera noa bada hamar bat bertso idazteko nahiko motiboa. Funtzionarien feudoa, medikuntzaren saldoa; hona, Gizarte Segurantzaren Salbe ta kredoa.
- 2.- Telefonoz hartu txanda, bihar bertan, hau da ganga! Ordua ere "once y media" erderaz esanda. Goiz guztirako parranda ziur horrera joanda; harritzekoa ez da mediku bakarra izanda.
- 3.- Aginduak paretetan: "No fumen" dio horretan, eta "Silencio por favor", berriz letra handietan. Gaixotasunen errekan gainbehera goaz kunetan; sano dagona ere gaixotu egiten da bertan.
- 4.- Zerbitzu honetan gaude herri atzeratuen pare: Gaixo dagona funtzionarien beldur ta mirabe. Nahiz garen bertako jabe anparo handirik gabe... dirudutenak igual ez, baina, behartsuei galde.
- 5.- Ez dihoala ederki jakin edozeinek daki, nahiago nuke hori aldatzeko zer egin baneki. Errezetaren aitzaki jubilatuen batzoki bilakatu da gaixotetxea poliki-poliki.
- 6.- Gaixo begi edo hortzak, min buru edo bihotzak, berdin-berdin da, alferrik dira deiadar mingotsak. Buru-makur eta lotsak, geure etxean arrotzak; otso artean gaizki ibili ohi dira bildotsak.
- 7.- Nahiz ta guztion burutan lekutan daude lekutan... Mediku finak eta otzanak Txindokiren puntan. Jartzen gaituena sutan hau da lautatik hirutan: Sendagile onak direla, baina, etxeko kontsultan.
- 8.- Eskatuz espezialista buka ezinezko lista, lau hilabete itxaron behar, ezin da sinista. Denok garenez aldizka horrelakoen kronista nik diodana edonork noiznahi dezake egizta.
- 9.- Noiz helduko da iraultza? Jaunak, hau ez bait da martxa... Gure diruak nora doazen badaukat zalantza. Ai, Gizarte Segurantza! Zurea ez da ez txantxa... Aspaldi galdu zuen gaixoak zugan esperantza.
- 10.- Buka dezadan nobela ironiazko koktela, sendagileren bat haserretu daiteke bestela. Sendatzekotan gibela presta ezazu sakela eta Opus-era zoaz zu ere bestek bezela!

